



Erich Honecker aske utzi dute eta Txilera joango da / 20



Valade gogor salatu du PSk Abiadura Handiko Trenaren afera dela eta / 8



Jaime Mayor Oreja: «Bergizarteratzeak ETAn eta HBn sortu behar du tentsioa» / 6

EUSKALDUNON Egunkaria

Osteguna, 1993ko urtarrilak 14 / IV. urtea / 653. zenbakia / Salneurria: 90 pta. / 5 libera

POLITIKA

Autodeterminazioaz mahaingurua Leioan

Zortzi talde herritarrek egoera politikoa aztertu eta autodeterminazioaren beharrez hitz egin zuten Leioako Unibertsitatean egindako mahainguruan. / 5

Estatu Batuek hiru orduko aire erasoaz zigortu dute Irak

Estatu Batuak, Frantzia eta Erresuma Batuko hegazkinek Irakeko hegoaldeko gune estrategikoak bonbardatu zituzten atzo, George Bush Estatu Batuetako lehendakariaren aginduz. Arratsaldean hasi eta iluntzerako


amaitu zuten indar aliatuek Saddam Hussein aurkako zigor operazioa, eta beste erasorik ez zela izango zioten azken berriek. Bi ordu eta 45 minutu inguru iraun zuten ekintzak.

Bonbardaketa 32 paralelotik hegoaldera dagoen lurraldera mugatu zen, eta Pentagonoko iturrien arabera, «erasoa mugatua baina zabala» izan zen. Saddam Husseinek Nazio Batuen Erakunde (NBE) erabakiei jara-

✓ Frantzia, Erresuma Batua eta Estatu Batuetako berrehun hegazkinetik gora aritu ziren bonbardaketan.

monik egin ez dielako ekin zioten erasoari indar aliatuek, Marlin Fitzwater Estatu Batuetako Gobernuko bozeramaileak atzo azaldu zuenez. Atzoko eraso amaitutzat jo bazuen ere, Bagdadek Nazio Batuen ebazpenak borxatzen jarraitzen badu berehala beste eraso bati ekingo diotela ohartarazi zuen Fitzwaterrek.

Irakek, Nazio Batuen hegazkinei hegaldiak egiteko baimena emateko eta Kuwaitera sarraldi gehiago ez egiteko prest dagoela jakinarazi zuen atzo, operazio militarren ondoren. Hala ere, eraso aliatuei erantzun egingo dietela ere adierazi zuten Bagadeko iturriek. / 19



ANDER GILLENEA

Joxemi Zumalabe hil da


Joxemi Zumalabe, EUSKALDUNON EGUNKARIAko Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkari zena, hil egin da. 1979an 'Zeruko Argia' astekarian lanean hasi ondoren, 'Argia' berriaren bultzatzaile nagusienetakoa eta bertako langile izan zen urtetan, orain hiru urte EGUNKARIA sortzeko lanari buru-belarri ekin zion arte. Joxemi Zumalabe izan da, barruko orrialdeetan Administrazio Kontseiluaren oharra dioen moduan, egunkari honen «buru eta bihotza». Donostiako Arantzazuko Amaren Erresidentzian hil zen herenegun gauean, 42 urte besterik ez zituela, minbiziak jota. / I-IV

Mende honetako uholde handienak Britainia eta Ardenetan

Frantziako iparmendebalde eta ekialdeko erregioetan mende honetako uholderik handienak izan dituzte, astelehenaz geroztik egin dituen eurite etengabeak direla eta. Britainia, Cotentin (Normandia) eta Ardenak eskualdeetan kalte ugari eragin dituzte uholdeek, bertako ibai guztiek gainezka egin ondoren. Hala ere, atzo arratsaldera arte biktimarik ez zen izan uholdeen ondorioz. Eskualde batzuetan 100 litrotik gora ur erori da metro karratuko azken egunotan. / 14

Autobideko lanak legezkoak direla esan dute epaile aurrean Galdos eta Sudupek

Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Roman Sudupe Herrilan eta Garraio diputatuak epailearen aurrean erantzun zioten atzo, Autobiaren Aurkako Taldeek «ingurugiro ikerketarik ez egiteagatik» ezarritako kereilari. Autobidearen eraikuntza erabat legezkoa dela adierazi zuen Eli Galdosek, eta Billabonako zatian egindako aldaketan ingurugiro ikerketarik ez bazen egin, «eskualde horretaz 1989an egindako ikerketak orain ere balio duelako» izan zela argitu zuen. Galdosen hitzetan, ikerketa hark zehazten duen pasalekutik ez da irten egun eraikitzen ari diren zatia. / 8



Galdos eta Sudupe, epaile aurrean deklarazioa egin eta gero. A. GILLENEA

BESTERIK

E K O N O M I A

UGT eta CCOOk ez dute onartuko CEOEk nahi duen soldata igoera / 13

K I R O L A

Pello Hontas miarritarra lehendabizikoz titular izango da V Nazioetan / 23

K U L T U R A

Ur taldearen 'El sueño de una noche de verano' lana Donostian / 24

DROGAREKIN ZERIKUSIA DUTEN POLIZIAK UGALTZEN ARI DIRELA DIO ASKAGINTZAK / 9